

TOKIKO GOBERNU-BATZORDEAK 2006KO OTSAILAREN BIAN EGINDAKO EZOHIZKO BATZARRALDIAREN AKTA.

Zumaiako herrian, 2006ko otsailaren biko arratsaldeko sei eta erdietan, Udaletxe honetako Alkatetzako bulegoetan, tokiko gobernu-batzordea eratu da ezohiko batzarraldia egiteko asmoz. Gai-zerrenda aurrez adierazitakoa da eta garaiz eta behar bezala deituriko batzordekide hauek bertaratu dira:

LEHENDAKARIA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna
Manuel ZUBIA ARTABE jauna
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA andrea

.- HIRIGINTZA:

1.1.- IGOGAILUAK JARTZEKO ETA FATXADAK KONPONTZEKO 2005EKO DIRULAGUNTZA ESKAEREN EBAZPENA.**B) IGOGAILUAK JARTZEAGATIKO 2005EKO DIRULAGUNTZAK:**

Igogailuak jartzeko dirulaguntzak eskatuz 2005ean egin diren eskaerak aztertu ondoren, dirulaguntza hauek ematea dagokio, horri buruzko araudian araututakoaren arabera:

ESKATZAILEA				DIRULAGUNTZA
JULIO BEOBIDE IBILTOKIA 27				2.640,19 €
AITA MARI AUZATEGIA 14				7.706,78 €
AITA MARI AUZATEGIA 7				8.308,30 €
ITZURUN ZUHAITZBIDEA 5				3.092,53 €
AITA MARI AUZATEGIA 5				8.308,30 €
AITA MARI AUZATEGIA 1				7.229,15 €
AITA MARI AUZATEGIA 8				8.308,30 €
MARTINEZ KLEISSER KALEA 1				7.310,94 €
SAN TELMO KALEA 11				8.308,30 €
ANGELES SORAZU KALEA 1				4.887,20 €

2005EKO DIRULAGUNTZAK, GUZTIRA**66.100 €**

Bozketa eginda, gobernu-batzordearen bilkurara bertaratu diren lau zinegotziek, aho batez, hau

ERABAKI DUTE

1.- Igogailuak jartzeagatiko dirulaguntzen 2005eko deialdiari dagozkion dirulaguntzak onartzea, erabaki honen azalpenezko zatiarekin bat etorritz.

2.- Interesatuei jakinaraztea, legeak araututako moduan.

B) FATXADAK KONPONTZEAGATIKO 2005EKO DIRULAGUNTZAK:

Fatxadak konpontzeko dirulaguntzak eskatuz 2005ean egin diren eskaerak aztertu ondoren, dirulaguntza hauek ematea dagokio, horri buruzko araudian araututakoaren arabera:

2005EAN ESKATUTAKO DIRULAGUNTZAK, FATXADAK KONPONTZEKO

ESKATZAILEA				DIRULAGUNTZA
HARATEGIKO KALEA 21				6.442,40 €
KALE NAGUSIA 6				2.758,37 €
KALE NAGUSIA 8				2.135,00 €
ERRIBERA KALEA 3				6.362,94 €
SAN JOSE KALEA 6				6.485,25 €
ERRIBERA KALEA 11				2.528,12 €
ERRIBERA KALEA 13				3.512,02 €

2005EKO DIRULAGUNTZAK, GUZTIRA**30.224,10 €**

Bozketa eginda, gobernu-batzordearen bilkurara bertaratu diren lau zinegotziek, aho batez, hau

ERABAKI DUTE

1.- Fatxadak konpontzeagatiko dirulaguntzen 2005eko deialdiari dagozkion dirulaguntzak onartzea, erabaki honen azalpenezko zatiarekin bat etorritz.

2.- Interesatuei jakinaraztea, legeak araututako moduan.

Bi deialdi horietako aurrekontu-sailen izaera loteslea adierazten da, igogailuak jartzeagatiko eta fatxadak konpontzeagatiko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan jasotzeko.

1.2.- HASIERAKO ONARPENA: HIRIGINTZA-PROIEKTUA, ARTADI, 17 HA; 17/2 EU; INMOBILIARIA ORIO TXOKO-TXIKIK BULTZATUA.

INMOBILIARIA ORIO TXOKO TXIKIK bultzatuta, Zumaiako arau subsidiarioetako 17 HA 17/2 EUren (Artadi) urbanizazio-proiektua aztertuko du udalak. Proiektua Pablo Borde Ondarra arkitektoak idatzi du.

Udal-zerbitzu teknikoen txostena aldekoa da (08/06 zenbakiko txostena).

ZUMAIAKO UDALA

HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA

TXOSTEN TEKNIKOA, zbkia. 08/06

PROIEKTUA: ERAIKUNTZA: URBANIZAZIOA

PLANGINTZA: 17/2 EU (... eta 17/3 EUren urbanizazio proiektuaren testu bategina)

KOKAPENA: LURZATIA: 17 HA

AREA: ARTADI

FASEA: HASIERAKO ONARPENA

ERAGILEA: INMOBILIARIA ORIO TXOKO TXIKI

TALDE EGILEA: PABLO BORDE ONDARRA, ARKITEKTOA

ONIRITZIAREN DATA: 05-12-25

SARRERA ERREGISTROKO DATA: 06-01-05

TXOSTENAREN DATA: 06-01-16

1.-AURREKARIAK/ANTECEDENTES.

Hirigintza-esparrua:

-Zumaiako arau subsidiarioen berrikuspena (04-02-17)

-17/3 EUren eta 17/2 EUren xehetasunezko azterketa.

(erabakitze dago bi xehetasunezko azterketa horiek nola egokitu, sustatzaileak interesa azaldu baitu bi familiako bi eraikin egiteko, 3 etxebizitza eta etxebizitza 1 eraikitze aurreikusitako partzela mugakideetan).

- 17/3 EUren urbanizazio-proiektua.

2.- IRUZKINAK.

Dokumentazio osoa aurkeztu da (planoak, memoria, baldintza-orriak, aurrekontua, kalitate-kontrola eta segurtasun- eta osasun-azterketa) Lurzoruaren Legearen Testu Bateginaren Planeamenduko Erregelamenduaren 69. artikuluan araututakoarekin bat etorriz.

Aurrekontu hau aurkeztu da:

Lanak egiteko aurrekontua..... 847.131,41 €

Segurtasun- eta osasun-azterketa.....	10.646,16 €
Kalitate-kontrola.....	11.990,14 €
LANAK EGITEKO AURREKONTUA, GUZTIRA.....	869.767,71 €

17.2 EUren Urbanizazio Proiektuaren barruan aurkeztu den dokumentazioak, izatez, 17/2 eta 17/3 exekuzio-unitateetako jarduera bateratzen du, eta, ondorioz, honek behar luke izenburu: “ARTADIKO 17/2 ETA 17/3 EXEKUZIO-UNITATEEN URBANIZAZIO-PROIEKTU BATERATUA”.

Aurkeztutako proiektuak planteamendu eta/edo irtenbide irekiak azaltzen ditu, eta posible izango da, besteak beste, udalaren irizpideak bertan jasotzea. Izan ere, 141. artikulua araberako izapidea aurreikusten da (136. artikulura igortzen duena; hau da, hasierako onarpena ematea eta jendaurrean erakustea), eta udalak berak onartuko du proiektua behin betiko.

Hauek dira, laburtuta, proiektuan jaso behar diren alderdiak, planoei dagokienez:

04 planoak.- berdegune-moduan marraztu behar da iparraldean (elizaren eta frontoiaren atzean) espazio publikoen lagapenerako izango den lurzorua, bidea eta eserlekuak jarri behar dira berdegunean, etab.

06 planoak.- Berrezpondatu baino lehen, profil naturala artekatu beharko da, irristadurarik izan ez dadin haustura-planoan.

06.2 planoak.- Aurrekoaren berdina.

09.1. planoak.- Saneamendu-sarearen eskema berrikustea, Miguel Salaberriaren proiektuaren eta udalaren eta ur-partzuergoaren jarraibideen arabera.

Hormigoizko putzu beltz aurrefabrikatuak ez du zehazten ez dekantazio-putzua, ez filtro biologikoa, ezta ur zikinen irteerako (18. arketa) arazte-ehunekoa (OEB).

Ez da zehazten lurrerako isuriak (euri-urenak) iragazte-ohetara egingo direnik. Ildo horretatik, egokia litzateke konparatzea bi aukera hauek: alde batetik, putzu jakin batzuk eta adierazitako putzu beltz osoa ez egitea, eta bestetik, kolektorea Korta poligonora arte egitea.

09.2 eta 09.3. planoak- Lagapeneko partzela berdeetarako hartune-koadroak prestatu beharko dira, udalaren etorkizuneko premietarako.

09.4 eta 10. planoak – Etxebizitza berrien hornidurarako eta haiei presioa emateko beste depositu bat egitea planteatzen da. Depositu hori 200 m³-koa litzateke (200.000 litro). Artadiko egungo depositua handituz egingo da, denen onerako izango baita.

Oraindik egokitzeko dagoen xehetasuneko azterketak erabaki beharko du deposituak okupatzeari utziko dion lurraren erregimena eta titularitatea.

Zumaiako Udalak aukeratuko ditu argi publikoak, eta bat etorriko dira Artadiko gainerako lekuetarako finkatutako irizpideekin.

Azkenik, Elizalde baserriak (17/1 UAD) modu proportzionalean ordaindu beharko ditu urbanizazio-kostuak, baliatu egingo baita antolamenduaren oinarritzko azpiegiturez.

3.-ONDORIOAK..

Hasierako onarpenaren aldeko txostena.

4.- BALDINTZAK.

3.1.-Behin betiko onarpenaren aurretik, planoak, memoria eta aurrekontua agiri berri batean zuzentzea, 2. kapituluaren azalpeneko zatiaren oharrei eta jendaurreko erakusketatik ondorioztatutako oharrei jarraituz.

3.2.- Instalazioak egokitzea, bai proiektuan, bai OBRA EGITEAN, Ur-Zerbitzuak eta udal-zerbitzu teknikoek azaldutako irizpideei eta baldintzei jarraituz. Horretarako, urbanizazio-proiektuaren agiri bat bidaliko da Ur-Partzuergora, azter dezaten. Hasierako onarpena erabaki ondoren, jendaurreko erakusketa-epe bat irekiko da, eta Ur-Zerbitzuak partzuergoak eman beharreko txostenak jasoko dira. Horrenbestez, erakunde jarduleek adieraz ditzaketen zuzenketak agiri berri horretan jaso ondoren, behin betiko onartuko da.

3.3.- Urbanizazio-lanei ekin baino lehen, udal-zerbitzu teknikoen eta sustapenaren arteko koordinazio-bilera bat egingo da, instalazioak, zoruak, hiri-altzariak eta gainerako urbanizazio-elementuak erabat zehazteko, epe luzea igaroko dela aurreikusten baita txosten hau egiten denetik bertan jorratzen diren lanak hasi arte.

3.4.-Presio-saiakuntzak (ur-hornidura), estankotasun-saiakuntzak (saneamendua) eta karga-saiakuntzak (bideak) egingo dira.

3.5.-Hasierako onarpena erabaki ondoren, jendaurreko erakusketa-epe bat irekiko da, eta Ur-Zerbitzuak partzuergoak eman beharreko txostenak jasoko dira. Horiek eginda, behin betiko onartuko da proiektua, adierazitako erakundeek erabaki ditzaketen zuzenketak jasoz.

3.6.-Urbanizazioren balioaren % 100ari dagokion bermea aurkeztea: 869.767,71 € udal-ordenantzetan araututakoari jarraituz.

3.7.-Epeak egokitzea: Testu bateginak epeen eta lanen planing bat aurkeztuko du, lotutako eraikinari buruzkoa.

4.-Alabaina, udal interesentzat egokiena irizten duena erabakiko du Udalbatzak.

ZUMAIAN, 2006KO URTARRILAREN 16AN. –LUCIANO PAGAEGI BILBAO,
ARKITEKTOA.

Txostena irakurri ondoren, urbanizazio-proiektuaren hasierako onarpena mahai gainean uztea proposatu du Alkate-Lehendakari andreak, ez baita konponbide egokirik proposatzen eremuaren saneamendurako.

Bozketa eginda, gobernu-batzordearen bilkurara bertaratu diren lau zinegotziek, aho batez, hau

ERABAKI DUTE

Pablo Borde Ondarra arkitektoak INMOBILIARIA ORIO TXOKO TXIKIren eskariz idatzitako Zumaiako arau subsidiarioetako 17 HA 17/2 EUren (Artadi) urbanizazio-proiektuaren hasierako onarpena mahai gainean uztea, eremu horren saneamendurako irtenbide egoki bat lortu arte.

1.3.-HASIERAKO ONARPENA: HIRIGINTZ PROIEKTUA, OIKIA, AU 19; UE 19/2; ALTUNA Y URIA SA-K SUSTATUA

CONSTRUCCIONES ALTUNA Y URIA SA sozietateak bultzatuta, Zumaiako arau subsidiarioetako 19 HA 19/2 EUren (Oikia) urbanizazio-proiektua aztertuko du Udalak. Proiektua Urkain SL talde teknikoak idatzi du.

Udal-zerbitzu teknikoen txostena aldekoa da (05/06 zenbakiko txostena).

ZUMAIAKO UDALA

HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA

TXOSTEN TEKNIKOA, zbkia. 05/06

PROIEKTUA: ERAIKUNTZA: URBANIZAZIOA

PLANGINTZA:

KOKAPENA: LURZATIA: 19 HA / 19.3 EU

AREA: OIKIA

FASEA: HASIERAKO ONARPENA

ERAGILEA: ALTUNA Y URIA S.A.

TALDE EGILEA: URKAIN S.L.

ONIRITZIAREN DATA: 05/12/07

SARRERA ERREGISTROKO DATA: 05/12/23

TXOSTENAREN DATA: 06/01/09

1.-AURREKARIAK.

Hirigintza-esparrua:

-Zumaiako planeamenduaren arau subsidiarioak (04)

Hirigintza-fitxa: 19 HA

Exekuzio-unitatea: 19.3 EU

Hirigintza-hitzarmena: Zumaiako Udalaren eta Zelaia-Komentua 06

HAKo Jabetzaren artekoa, 06 HAKo aprobetxamendu urbanistikoari dagokion %20 (babes ofizialeko etxebizitzak egiteko xedatua) Oikian (19 HA) gauzatzea hitzartzen duena; zehazki, 19.3 EUn, exekuzio-unitate horren beraren jabearena.

Xehetasunezko azterketa, behin betiko onartua.

2.- IRUZKINAK.

Behin betiko onartutako xehetasunezko azterketak finkatu zuen, besteak beste, 1.586 m²-ko lur-lagapena zuzendu behar zela, amaierako barne-bidearen espaloiak eta kanpo-bideen (ekialdekoa eta mendebaldekoa) barne-loturak doitzeko.

Hauxe arautzen du hirigintza-fitxako 7.3 kapituluak:

“(...) Urbanizazio-baldintza espezifikoak.

Ekialdeko eta mendebaldeko kaleak zabaltzea eta horien artean oinezkoentzako loturak egitea, ibilbideak egituratzeko.

Irisgarritasuna Sustatzeko Legea betetzea.

Aparkalekuak egitea (gutxienez, 16) (...)”

Proiektuak dokumentazio osoa aurkezten du (memoria, planoak, baldintza-orriak, neurketak, aurrekontua, segurtasun- eta osasun-azterketa, eta kalitate-kontrola) Lurzoruaren Legearen Testu Bateginaren Planeamenduko Erregelamenduaren 69. artikuluan araututakoarekin bat etorritik.

Obra zibilaren aurrekontua	428.835,95 €
Segurtasuneko eta osasuneko aurrekontua.....	10.431,59 €
Kalitate-kontrolaren aurrekontua....	4.717,20 €

GUZTIRA..... 443.984 €,74 €

Aurkeztutako proiektuak planteamendu eta/edo irtenbide irekiak azaltzen ditu, udalaren irizpideak bertan jasotzeko. Izan ere, 141. artikulua araberako izapidea aurreikusten da (136. artikulura igortzen duena; hau da, hasierako onarpena ematea eta jendaurrean erakustea), eta udalak berak onartuko du proiektua behin betiko.

Hauk dira, laburtuta, proiektuan jaso behar diren alderdiak:

- e) M2 hormak, posible bada, irekidura bat izango du, oinezkoentzako sigi-saga moduko lotura (mailatan egindako aldapa bat edo antzeko zerbait) egiteko aparkalekuetarako plataformarekin (+48,50) berdegunean zehar. Azken horretan, egoteko gunek bat presta daiteke.
- f) Proiektuko eustorma guztiek (M₁, M₂, M₃...) harrizko akabera izan behar dute (kareharrizko harri-horma), eta bat egin behar dute proiektuetan zehaztutako arkitektura-lanekin.
- g) 11.1 Zerbitzuen Koordinazioa planoan: oinplano orokorra aztertu beharko da, ahalik eta zortasun gutxienez sortzeko jabetza publikoko berdegunean.
- h) Transformazio-zentro berria lurpean jarri beharko da.

Obra egitean aintzat hartu beharko dira, bai alderdi hauek, bai gerora sor daitezkeen beste batzuk.

3.-ONDORIOAK.

Horiek guztiak jasota, agiria aurkezten da, hasierako onarpena jaso dezan. Horrenbestez, urbanizazio-proiektuaren hasierako onarpenaren ALDEKO txostena ematen

da; hala ere, hura behin betiko onartu baino lehen, erantsitako edo bategindako agiri bat entregatu beharko da, baldintza hauek jasotzen dituela:

4.- BALDINTZAK.

4.1.-2.3 / 2.7 / eta 11.1 planoak zuzentzea, azalpeneko zatian adierazitako oharren eta jendaurreko erakusketa-epean onar daitezkeen beste ohar batzuen arabera.

4.2.- Urbanizazio-lanei ekin baino lehen, udal-zerbitzu teknikoek eta sustapenaren arteko koordinazio-bilera bat egingo da, instalazioak, zoruak, hiri-altzariak eta gainerako urbanizazio-elementuak erabat zehazteko, epe luzea igarotzea aurreikusten baita txosten hau egiten denetik bertan jorratzen diren lanak hasi arte.

4.3.- Instalazioak eta urbanizazioa egokitzea, bai proiektuan, bai OBRA EGITEAN, Ur-Zerbitzuak partzuergoak eta udal-zerbitzu teknikoek azaldutako irizpide eta baldintzetara. Horretarako, proiektuaren agiri bat bidaliko da Ur-Partzuergora, azter dezaten.

Hasierako onarpena erabaki ondoren, jendaurreko erakusketa-epe bat irekiko da, eta Ur-Zerbitzuak partzuergoak eman beharreko txostenak jasoko dira. Horiek eginda, behin betiko onartuko da proiektua, adierazitako erakundeek erabaki ditzaketan zuzenketak jasoz.

4.4.-Presio-saiakuntzak (ur-hornidura), estankotasun-saiakuntzak (saneamendua) eta karga-saiakuntzak (bideak) egingo dira.

4.5.-Urbanizazio-lanen balioaren % 100 arteko bermea aurkeztea; hau da, 443.984,74 € udal-ordenantzak araututakoarekin bat etorritz.

4.6.-Epeak egokitzea: epeen eta urbanizazio-lanen (faseen) planing bat aurkeztuko da, horiek xede dituzten eraikuntzari buruz, baita Komentua-Zelaia 06 HArri buruz ere. Azken horri lotuta daude babes ofizialeko etxebizitzaren bizigarritasun-baimenak.

4.7.-Sustapenak unean-unean emango dio Zumaiako Udalarari Eusko Jaurlaritzak Babes Ofizialeko Etxebizitzaren kalifikazioa onar dezan egin beharreko urratsen berri, Zumaiako Udalak etxebizitza babestu horien zozketa egin dezan.

5.-Alabaina, udal interesentzat egokiena irizten duena erabakiko du Udalbatzak.

ZUMAIAN, 2006KO URTARRILAREN 9AN. -LUCIANO PAGAEGI BILBAO, ARKITEKTOA.

Urbanizazio-proiektuaren hasierako onarpenaren aldeko irizpena eman du Hirigintza Batzordeak.

Bozketa eginda, gobernu-batzordearen bilkurara bertaratu diren lau zinegotziek, aho batez, hau

ERABAKI DUTE

LEHENA: Hasierako onarpena ematea Zumaiako arau subsidiarioetako 19 Hako 19/2 EUren (Oikia) urbanizazio-proiektuari, Urkain SL talde teknikoak idatzitakoa, CONSTRUCCIONES ALTUNA Y URIA SA sozietatearen ekimenez.

BIGARRENA: GAOn eta hedapen handieneko egunkari batean iragarki bana jarritz, jendaurreko informazio-izapidea zabaltzea, hamabost egunerako. Banan-banan jakinaraziko zaie erabakia proiektuaren eraginpeko lurralde-eremuko jabeei eta zuzenean eragindako gainerako interesdunei, bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakariak amaitutzat eman du batzarraldia, arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA